# COVID-19ARI BURUZKO NAZIOARTEKO GOMENDIOAK

## EUROPAR BATASUNEKO OINARRIZKO ESKUBIDEEN AGENTZIA

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak hileko aldizkari-sorta baten zazpigarrena argitaratu du. Aldizkari horietan aztertzen du Europar Batasunak COVID-19aren kontra hartutako neurriek zer eragin izan duten oinarrizko eskubideetan. Txostena txertoak eskuratu ahal izateari buruzkoa da, ingelesez bakarrik dago eskuragarri, eta 2021eko martxoaren 30etik apirilaren 30era bitarteko aldia hartzen du barne. Jarraian, Agentziak egindako laburpena eta aurkikuntza nagusiak itzuliko ditugu.

"COVID-19aren kontrako txertaketa-kanpainak espero zen bultzada izaten ari dira une honetan, gizartea normaltasunera itzultzen ari denean eta pertsonak asko beren oinarrizko eskubideak berreskuratzen ari direnean. Hala ere, inoiz ez bezalako ahalegin horiek egitean, talderik kalteberenak ahazteko arriskua dago. Europar Batasuneko estatuek arduratu behar dute inor atzean ez uzteaz eta txertoak ekitatiboki eskuratzea bermatzeaz beren txertaketa-kanpainetako fase guztietan" (Michael O'Flaherty, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziako zuzendaria).

Europar Batasuneko koronabirusaren izurriari buruzko azken txostenean, txertoak jaso ahal izatea hartu da aztergai nagusitzat, plangintzatik hasi eta txertoak jarri arte. Txostenak erakusten duenez, estatuek zenbait kanal eta hedabide erabili dituzte hainbat gizarte-talderengana iristeko, baita hurbilgaitzenengana ere.

Txertoa jasotzeko izen-ematea digitala nahiz analogikoa izan da, denentzat eskuragarri jartzeko. EBko herrialde askok txertaketa-zerbitzu mugikorrak jarri dituzte; horiei esker, adin handiko pertsonak, etxegabeak, mugikortasun urrikoak edo eremu bakartuetako biztanleak txertatu ahal izan dituzte.

Haatik, txosten horretan agerian jartzen dira, halaber, txertaketa-estrategietan eta txertoak jartzean ikusi diren gabezia batzuk, zuzendu beharrekoak:

- Lehentasuna: edadetuen, osasun-arazoak dituztenen eta funtsezko langileen pilaketak zenbaitetan ezkutatu egin ditu beste arrisku-talde batzuk. Europar Batasuneko herrialdeen artean, heren batean bakarrik hartu dira lehentasuneko taldetzat askatasunik gabeko pertsonak, nahiz eta horiek kutsatzeko arrisku handia izan, espetxeetako jende-pilatzeak direla eta. EBko herrialde guztiek ez dituzte erabili talde kalteberenak lehenestea gomendatzen duten nazioarteko gidalerroak; halako taldeak dira ijitoak edo nomadak, etxegabeak edo drogazaleak.
- Txertaketa pribilegiatua: herrialde batzuetan, lehentasuneko taldeetakoak ez ziren pertsonak txertatu dituztela dioten informazioek azpiak jan dizkiote txertaketa-estrategia nazionaletan zegoen konfiantzari. ·
- Eskuragarritasuna: espetxeratuek edo etxegabeek eta legez kanpoko egoeran dauden asilo-eskatzaileek edo migratzaileek nekez jaso ditzakete txertoak, ez baitute izaten osasun-sistema nazionalen estaldurarik. Hala ere, herrialde batzuetan, gizarte segurantzako zenbaki bat izateko betebeharretik salbuetsi dituzte, txertatuak izateko.
- Informazioa: EBko herrialdeek oso gutxitan eskaintzen dute desgaituentzako informazio eskuragarria, edo hizkuntza ezberdinetan, hizkuntza nazionala ez dakitenentzat, hala nola migratzaileentzat edo gutxiengo etnikoetako kideentzat.

Txostenean nabarmendu da pertsonen txertaketak aurrera egin duela EB osoan. Alabaina, era berean, ohartarazi da oraindik arazoak daudela txertoak zuzen eta berdin eskuratuko direla ziurtatzeko, nazioarteko gidalerroen arabera. Txertaketan zuzen jokatzeak gutxitu egingo du izurriak gizartean eta ekonomian duen kostua, eta behartsuenen eskubide sozialak babestuko ditu.

### Espainiaren egoerari buruzko txostena

Oinarrizko Eskubideen Agentziak azterlanak enkargatu ditu EBko 27 estatu kideetan. Espainiari buruzko azterlanak, Migrazioei buruzko Azterlanen Unibertsitate Institutuak eginak, ez du nahitaez FRAren iritzi edo jarrera ofiziala islatzen, apirilaren 30era arteko informazioa jasotzen du eta ingelesez dago eskuragarri.

## NAZIOARTEKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

### Agiri eta baliabide orokorrak

Nazio Batuetako Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioa

- COVID-19ari buruzko gidalerroak (gaztelaniaz)

Europako Kontseiluko Giza Eskubideen aldeko Komisarioa

- COVID-19aren gaineko komunikatuak (ingelesez)
- Europako Kontseiluaren bideo-mezuak zenbait gairi buruz (espetxeak, gutxiengoen hizkuntzak, botikak faltsutzea eta abar (ingelesez)

Europako Kontseiluko Idazkari Nagusia

- Informatzeko agiria COVID-19aren osasun-krisialdian demokrazia, zuzenbide estatua eta giza eskubideak errespetatzeaz (ingelesez)
- Europako Kontseiluaren orrialdea, pandemiak giza eskubideetan eta zuzenbide estatuan izan duen eraginaz (ingelesez)

### Gaien araberako agiriak eta baliabideak

Giza eskubideen arloko gaiak, COVID-19aren pandemia dela eta

- NBEko Giza Eskubideen Batzordearen ohar orokorra larrialdi egoeren gainean (gaztelaniaz)
- Veneziako Batzordearen txostena: Demokrazia, giza eskubideak eta zuzenbide estatua errespetatzea larrialdi egoeretan (ingelesez)
- COVID-19aren testuinguruan NBEko giza eskubideei buruzko hitzarmenak erabiltzeko gida (ingelesez)
- Nazio Batuetako Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren gidalerroak, larrialdiko neurriez eta COVID-19az (gaztelaniaz)
- Nazio Batuetako Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren eta NBEko beste agentzia batzuen egiaztapen-zerrenda giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaz, COVID-19ari erantzun sozioekonomikoa emateko (ingelesez)
- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren txostena: COVID-19a eta giza eskubideak (ingelesez)
- Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen adierazpena (ingelesez)
- Eskubide Sozialen Europako Batzordearen adierazpena COVID-19az eta eskubide sozialez (ingelesez)
- NBEko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen adierazpena (gaztelaniaz)
- Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundearen txostena, estatuek COVID-19ari emandako erantzunez (ingelesez)
- Nazio Batuetako Aditu Independentearen txostena, COVID-19aren izurrialdian eta horren ondoren nazioarteko elkartasunak giza eskubideen eraginkortasunaren alde egindako ekarpenaz (gaztelaniaz)
- Nazio Batuetako Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren gidalerroak, gizarte zibileko erakundeentzako espazioaz (gaztelaniaz)

- Nazio Batuetako Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren gutuna giza eskubideen erakunde nazionalentzat (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren adierazpena, era baketsuan biltzeko eta elkartzeko eskubideaz (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren txostena, pandemiei eta iritzi- eta adierazpen-askatasunari buruz (gaztelaniaz)
- NBEko Kontalari Bereziaren txostena, kultura-eskubideei buruz: COVID-19a, kultura eta kultura-eskubideak (gaztelaniaz)
- Europako Kontseiluko Bioetika Batzordearen komunikatua (ingelesez)
- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren gida, elikagaien segurtasunaz eta nutrizioaz (ingelesez)
- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren gida, COVID-19ak hirigunean duen eraginaz (ingelesez)
- Human Rights Watch-en giza eskubideak egiaztatzeko zerrenda (gaztelaniaz)
- Europako Kontseiluaren sarrerako oharra: diskriminazioaren kontrako jarrera, aniztasuna eta inklusioa, COVID-19ari erantzutean (ingelesez)
- Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gidalerroak, COVID-19aren izurrialdian bereizkeriaren kontra babesteari buruz, eta gidalerro horiek azaltzeko agiria (ingelesez)
- Europako Kontseiluaren jarduera egokien bilduma, COVID-19aren izurriari bereizkeriaren kontrako erantzunak emateaz (ingelesez)
- Equinet-en gomendioa, Europa bidezkoa eta berdina lortzeko COVID-19aren ondorengo susperraldian (ingelesez)
- Europako Kontseiluko Bioetika Batzordearen adierazpena, txertaketa pasaporteez eta horien tankerako agiriez (ingelesez)
- Europako Kontseiluko Datuak Babesteko Aholku Batzordearen adierazpena, txertaketa pasaporteez (ingelesez)
- Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiaren oharra: giza eskubideei buruzko alderdi batzuk, txertaketa pasaportearen gainean (ingelesez

Muturreko pobreziari buruzko gomendioak

- NBEko Kontalari Bereziaren txostena, muturreko pobreziaz: target=_altEskubideetan oinarritutako ikuspegia, COVID-19aren ondorengo ekonomia-susperraldian gizartea babesteko (ingelesez)

Justiziari buruzko gomendioak

- Justiziaren Eraginkortasunerako Europako Batzordearen gidalerroak, justiziak COVID-19aren krisiaren aurretik eta ondotik dituen erronkez (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren adierazpena epaileen eta abokatuen independentziaz, justizia-sistemen jarduna bermatzeko (gaztelaniaz)
- Europako Epaileen Aholku Batzordeko presidentearen adierazpena (ingelesez)
- Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundearen gida: justizia COVID-19aren iraunaldian (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren txostena, epaile eta abokatuen independentziaz eta COVID-19ak dituen erronkez, justizia independentea lortzeko (gaztelaniaz)

Lan arloko gomendioak

- Lanaren Nazioarteko Erakundearen txostena: "Izurriaren kontra: laneko segurtasuna eta osasuna bermatzea" (gaztelaniaz)
- Lanaren Nazioarteko Erakundearen aholku baliagarriak (ingelesez; orrialdearen gaztelaniazko bertsioak baditu agiri batzuk gaztelaniaz, baina ez denak)
- Lanaren Nazioarteko Erakundearen analisia eta gomendioak (ingelesez; orrialdearen gaztelaniazko bertsioak baditu agiri batzuk gaztelaniaz, baina ez denak)
- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren gida COVID-19az eta lan munduaz (ingelesez)

Osasun-langileak babestearen gaineko gomendioak

- NBEko Kontalari Bereziaren komunikatua, substantzia eta hondakin arriskutsuak ekologikoki arrazoizkoa den moduan kudeatzeak eta ezabatzeak giza eskubideentzat dituzten ondorioez (gaztelaniaz)

Osasunerako eskubideari buruzko gomendioak

- Giza Eskubideen aldeko Europako Batzordearen adierazpen interpretatiboa, pandemia garaian osasun-eskubidea izateaz (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren txostena, COVID-19ari buruzko osasunerako eskubideaz (gaztelaniaz)
- Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Komisarioaren txostena, osasuna izateko eskubideaz (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren txostena, substantzia eta hondakin arriskutsuak ekologikoki arrazoizkoa den moduan kudeatzeak eta ezabatzeak giza eskubideentzat dituzten ondorioez. COVID-19aren birusaren eraginpean egotea prebenitzeko beharra (gaztelaniaz)
- NBEko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen adierazpena, koronabirusaren gaitzaren kontrako txertoetara sarbide unibertsala eta bidezkoa izateaz (gaztelaniaz)
- Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarraren Ebazpena, COVID-19aren kontrako txertoen gaineko hausnarketa legal, etiko eta praktikoez (ingelesez)
- NBEko Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren oharra: giza eskubideak eta COVID-19aren kontrako txertoa eskuratu ahal izatea (ingelesez)
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen adierazpena: txertaketa unibertsal eskuragarria koronabirusak sortutako gaitzaren kontra, nazioarteko lankidetza eta jabetza intelektuala (gaztelaniaz)
- Europako Kontseiluko Bioetika Batzordearen adierazpena, COVID-19aren kontrako txertoak eskuratu ahal izateaz (ingelesez)
- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren txostena, COVID-19az eta osasun-estaldura unibertsalaz (gaztelaniaz)
- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren gida, osasun mentalari buruz (ingelesez)

Ingurumena

- NBEko giza eskubideen eta ingurumenaren aldeko Kontalari Bereziaren adierazpena (gaztelaniaz)
- Hondakin biomediko eta sanitarioak ingurumenaren ikuspegitik zentzuz erabiltzeari buruzko gidalerro teknikoak, Nazio Batuen Ingurumenerako Programakoak (gaztelaniaz)
- NBEko Kontalari Bereziaren adierazpena giza eskubideei eta ingurumenari buruz (gaztelaniaz)
- Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren isuriei buruzko 2020ko txostena: Funtsezko berdea berreskuratzea, isurien zuloa ixteko (ingelesez)
- Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren txostena: Ikuspegi berdeak, COVID-19tik suspertzeko (ingelesez)
- Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren txostena: COVID-19a, ingurumena eta elikadura-sistemak (ingelesez)
- Nazio Batuen Ingurumenerako Programa eta Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioa: Giza eskubideak, ingurumena eta COVID-19a. Funtsezko mezuak (gaztelaniaz)
- Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren txostena: COVID-19aren izurritearen iraunaldian hondakinak kudeatzea: erantzun-alditik susperraldira (ingelesez)
- Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren txostena: Hurrengo izurriari aurrea hartzea. Zoonosia: nola hautsi transmisio-katea (gaztelaniaz)

Ustelkeria

- COVID-19aren testuinguruko ustelkeria-arriskuari buruzko gidalerroak, Europako Kontseiluko Ustelkeriaren kontrako Estatu Taldeak eginak (ingelesez)

Botikak faltsutzearen kontra borrokatzeko gomendioak

- Europako Kontseiluaren komunikatua, medikuntza-produktuak faltsutzeari eta osasun publikoarentzat arriskua dakarten horren antzeko delituei buruzko hitzarmena ezartzeari buruz (ingelesez)
- Europako Kontseiluaren gomendioak, Botikak faltsutzearen kontrako hitzarmena COVID-19aren kontrako txerto-faltsutzeei ezartzeaz (ingelesez)

Askatasunik gabeko pertsonen inguruko gomendioak

- NBEko Tortura Prebenitzeko Azpibatzordearen gomendioak (prentsa-oharra gaztelaniaz eta agiria ingelesez)
- NBEko Tortura Prebenitzeko Azpibatzordearen aholkuak, nahitaezko berrogeialdiaz (gaztelaniaz)
- NBEko Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren eta Osasunaren Mundu Erakundearen behin-behineko gidalerroa (gaztelaniaz)
- Europako Kontseiluaren Tortura Prebenitzeko Batzordearen printzipioen adierazpena (gaztelaniaz)
- Europako Kontseiluaren Tortura Prebenitzeko Batzordearen Printzipioen Adierazpenari egindako jarraipen-oharra (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren informazio-oharra, COVID-19aren inguruko Egiaz, Justiziaz eta Ordainaz, espetxeetan jendea pilatzeaz eta giza eskubideen urratze larriengatik zigorrak betetzeaz
- Nazio Batuetako agentzia batzuen baterako komunikatua, espetxeez eta beste inguru itxi batzuez (ingelesez)
- Unicefen ohar teknikoa COVID-19ari eta askatasunik gabeko haurrei buruz (gaztelaniaz)
- Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundearen gida, COVID-19aren krisian atxiloketa-lekuak ikuskatzeaz (gaztelaniaz)

Indarra erabiltzeari buruzko gomendioak

- NBEko Kontalari Bereziaren gidalerroak exekuzio estrajudizial, sumario eta arbitrarioez, poliziek eta militarrek larrialdi egoeretan indarra erabiltzearen gainean (ingelesez)

Datuak babesteari buruzko gomendioak

- Europako Kontseiluaren adierazpena, COVID-19aren pandemia-egoeran datuak babesteko eskubideaz (ingelesez)
- Europako Kontseiluaren adierazpena, harremanen bilakaera aztertzeko aplikazioez (ingelesez)
- "Cities for digital rights" koalizioaren gomendioak, COVID-19arekin lotutako teknologiak erabiltzean eskubide digitalak babesteari buruz (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren txostena, pribatutasunerako eskubideaz. COVID-19aren izurriteak pribatutasunean izan dituen ondorioak (gaztelaniaz)
- Europako Kontseiluaren txostena, datuak babesteaz. Konponbide digitalak COVID-19aren kontra borrokatzeko (ingelesez)

Etxebizitza izateko eskubideari buruzko gomendioak

- NBEko Kontalari Bereziaren ohar orientagarria etxebizitza egokia izateko eskubideaz, etxegabeak babesteaz (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren ohar orientagarria etxebizitza egokia izateko eskubideaz, asentamendu informaletan bizi direnak babesteaz (ingelesez)

- NBEko Kontalari Bereziaren ohar orientagarria etxebizitza egokia izateko eskubideaz, maizterrak eta hipoteka zordunak babesteaz (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren ohar orientagarria, etxebizitza egokia izateko eskubideaz, etxebizitza finantza-espekulazioaren kontra babesteaz (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren txostena, etxebizitza egokia izateko eskubideaz: COVID-19a eta etxebizitza egokia izateko eskubidea: eraginak eta etorkizuneko neurriak (gaztelaniaz)

Genero indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimen gaineko gomendioak

- Istanbulgo Hitzarmenaren Batzordearen adierazpena, jarduteko iradokizunak barne direla (ingelesez)
- NBEko Kontalari Berezi batzuen komunikatua (gaztelaniaz)
- Europako Kontseiluko Emakumeen aurkako Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren kontrako Adituen Taldearen komunikatua (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren txostena, emakumeen kontrako indarkeriaz, horren zergatiez eta ondorioez. COVID-19aren izurriaren eta emakumeen kontrako genero-indarkeriaren izurriaren arteko elkarreragina (gaztelaniaz)
- Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundearen oharra, etxeko indarkeriaz eta COVID-19aren krisialdiaz (ingelesez)

Emakumeen eskubideei buruzko gomendioak

- NBEko Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren gidalerroak (gaztelaniaz)
- NBEko Emakumeen kontrako Bereizkeria Desagerrarazteko Batzordearen gidalerroak (gaztelaniaz)
- NBEko Emakumeen kontrako Bereizkeria Desagerrarazteko Batzordearen batera jarduteko deia (gaztelaniaz)
- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren txostena (gaztelaniaz)
- Nazio Batuetako Biztanle Funtsaren txosten teknikoa, genero ikuspegiaz (gaztelaniaz)
- Unicef-en ohar teknikoa: Genero berdintasunerako bost jarduera, COVID-19ari erantzuteko (ingelesez)
- Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Erakundearen ohar teknikoa (ingelesez)
- NBE Emakumeak-en txostena: COVID-19a eta emakumeen kontrako indarkeria desagerraraztea (ingelesez)

Adinekoei buruzko gomendioak

- Nazio Batuetako Kontalari Bereziaren komunikatua, adin handikoek giza eskubide guztiak baliatu ahal izateaz (gaztelaniaz)
- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren gida (ingelesez)
- Nazio Batuen Aditu Independentearen txostena, edadetuek giza eskubide guztiak baliatzeari buruz. COVID-19aren eragina edadetuen giza eskubideetan (gaztelaniaz)

Desgaituen gaineko gomendioak

- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren gida (ingelesez)
- NBEko Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren gidalerroak (gaztelaniaz)
- Nazio Batuetako Kontalari Bereziaren komunikatua, desgaituen eskubideei buruz (gaztelaniaz)
- COVID-19aren pandemia egoeran, desgaitasunari buruzko gaien agiria, NBEko Kontalari Bereziarena (ingelesez)
- COVID-19aren pandemiari erantzun sozial barneratzailea emateari buruzko agiria, NBEko Kontalari Bereziarena (ingelesez)
- Desgaituen Eskubideei buruzko Batzordearen adierazpena (gaztelaniaz)

Haurrei eta gazteei buruzko gomendioak

- Europako Kontseiluaren gomendioak (ingelesez)
- COVID-19ak haurren bizitzan izan duen eragina dela eta, Europako Batzordeak egindako txosten eta azterlan hautatuak (ingelesez)
- Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarearen komunikatua, COVID-19aren testuinguruan haurrek dituzten eskubideez (ingelesez)
- Europako haurren defentsa-erakundeek prestaturiko baliabideak (ingelesez)
- Europako Kontseiluaren komunikatua, haurrak sexu-abusuaren eta sexu-esplotazioaren kontra babesteko neurriak indartzeaz (ingelesez)
- Haurren Eskubideen Batzordearen oharra (gaztelaniaz)
- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren gida (ingelesez)
- Nazio Batuetako agentzia batzuen jarduera-agenda (ingelesez)
- Nazio Batuetako agentzia batzuen adierazpena, gazteez eta COVID 19az (ingelesez)
- Jarduera humanitarioan haurrak babesteko Aliantzaren ohar teknikoa, umeak babesteaz (ingelesez)
- NBEko Kontalari Bereziaren txostena, haurren salmentari eta sexu-esplotazioari buruz: koronabirusak sortutako gaitzaren ondorioak haurren salmentaren eta sexu-esplotazioaren agerraldietan (gaztelaniaz)

Hezkuntzari buruzko gomendioak

- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren gida, COVID-19aren iraunaldiko eta pandemiaren ondorengo hezkuntzaz (gaztelaniaz)
- Nazio Batuetako Kontalari Bereziaren txostena hezkuntzarako eskubideaz: COVID-19aren eragina hezkuntzarako eskubidean (ingelesez)

LGBTI pertsonei buruzko gomendioak

- NBEko Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren gidalerroak (gaztelaniaz)
- NBEko Aditu Independentearen gidalerroak, sexu-joeragatik edo genero-identitateagatik egiten diren indarkeriaren eta bereizkeriaren kontra babesteaz (gaztelaniaz)
- NBEko Aditu Independentearen txostena, sexu-joeragatik edo genero-identitateagatik jasandako indarkeriaren eta bereizkeriaren aurka babesteaz. Sexu-joeragatik eta genero-identitateagatik indarkeria eta bereizkeria pairatzea COVID-19aren izurrialdian iraunaldian (gaztelaniaz)

Migratzaileen inguruko gomendioak

- NBEko Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren gidalerroak (gaztelaniaz)
- Migrazioari buruzko Nazio Batuen Sarearen komunikatua, migratzaileen itzulera gelditzeko beharraz (ingelesez)
- Migrazioari buruzko Nazio Batuen Sarearen gida, migratzaileak atxilotzeaz (ingelesez)
- Nazio Batuetako Kontalari Bereziaren ohar orientagarria, migratzaileen giza eskubideez (ingelesez)
- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziaren hiruhileko txostena, migratzaileei dagozkien oinarrizko eskubideen gaineko gai nagusiez
- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren txostena, COVID-19ak errefuxiatuen, barruko lekualdatuen eta migratzaileen joan-etorrietan izan duen eraginaz (ingelesez)
- Langile Migratzaileei buruzko NBEko Batzordearen oharra, migratzaile guztiek COVID-19aren kontrako txertoak bidezkotasunez eskuratu ahal izateaz (ingelesez)

Arrazakeriaren biktimei buruzko gomendioak

- Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren ohar orientagarria gorroto-diskurtsoaz (ingelesez)

- NBEko Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren oharra, COVID-19aren testuinguruan arrazagatik egindako bereizkeriaz (ingelesez)
- Nazio Batuetako Lantaldearen adierazpena, afrikar jatorriko pertsonez (ingelesez)
- Nazio Batuen Sarearen adierazpena, arraza-bereizkeriaz eta gutxiengoak babesteaz (ingelesez)
- Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundearen Gutxiengo Nazionalei buruzko Goi Komisarioaren gomendioak (ingelesez)
- Europako Kontseiluaren adierazpena COVID-19az eta gutxiengo nazionalez (ingelesez)
- NBEko Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren oharra, COVID-19aren krisian gutxiengoen eskubideei buruzko etorkizun handiko jarduera batzuez (ingelesez)
- NBEko Arraza-bereizkeria ezabatzeko Batzordearen adierazpena, Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Hitzarmenaren inguruko pandemiaren ondorioei buruzkoa (ingelesez)
- Nazio Batuetako afrikar ondorengoei buruzko Adituen Lantaldearen txostena. COVID-19a, arrazakeria sistemikoa eta munduko protestak (gaztelaniaz)

Pertsonen salerosketaren biktimei buruzko gomendioak

- Europako Kontseiluaren Pertsonak Salerostearen kontra Borrokatzeko Adituen Taldearen gomendioak (ingelesez)
- Nazio Batuetako Kontalari Bereziaren txostena, COVID-19aren pandemiak pertsonen salerosketaren eta esplotazioaren biktimengan izan duen eraginaz (ingelesez)
- Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundearen eta NBE Emakumeak-en gida, COVID-19aren pandemiak iraun bitartean pertsonen salerosketako joerak aztertzeaz (ingelesez)

Osasun krisiaren gaineko informazioa emateko orduan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzeari buruzko gomendioak

- Europako Kontseiluaren Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Gutuneko Adituen Batzordeak egindako komunikatua (ingelesez)
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Gutuneko Adituen Batzordeak egindako komunikatua, eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzetan hezkuntza online eskaintzeaz (ingelesez)

Droga-hartzaileen inguruko baliabideak

- Europako Kontseiluko "Pompidou Taldearen" argitalpena, droga-erabiltzaileei eta COVID-19ari buruz (ingelesez)